

EREMUAK | HALFHOUSE EGOITZARAKO 2018KO UDAKO DEIALDIA

eremuak programak egonaldi-deialdi bat ireki du, Halfhousekin lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegoko artistentzat. Deialdiak arte bisualen testuinguruan lan egiten duten artistei eta/edo sortzaileei laguntzea du helburu. Egonaldia uztailaren 1ean hasi eta irailaren 2an amaituko da, Halfhousen Bartzelonako egoitzan. Egonaldia artistaren erakusketa batekin amaituko da, gune horretan bertan inauguratuko dena 2018ko irailaren 1ean.



Eremuak-Halfhouse 2017ko egonaldia. *ABDUCTION SCARE*, Jorge Nuñez de la Visitación.

Halfhouse 2009. urtean jaio zen irabazi-asmorik gabeko guneko bat da eta, bertan, artearen esparruko proiektuak garatzen dira. Era berean, Sinéad Spelman eta Alberto Peral artisten etxebizitza da. Ordudanik, nazioko eta nazioarteko hainbat artista igaro dira etxetik, bertan erakusketak, aurkezpenak eta workshopak eginez. Jarduera horien barnean, artisten egoitza oso alderdi garrantzitsua izan da; izan ere, lekua ezaugarriak direla-eta, bizi den lekuan bertan lanaren aurkezpena egin ahal izatea. Proiektuaren etxeko filosofiaren oso gertuko ideia bat izan da beti. 2016 urtetik, Halfhousek egoitza-hitzarmen bat du **eremuak** programarekin, Euskal Herriko artista bat gonbidatzeko.

Egoitzaren ezaugarriak

Etxea hiriaren goialdean dagoen berdegune baten alboan dago, Collserola parkearen alboan, hain zuzen. Etxea Kataluniako trenbidearen geltoki baten parean dago, erdialdetik 12 minutura. Gainazal erabilgarriak 100 m² ditu etxearen barnealdean eta 270 m² lorategian. Etxeak artista bat, bi artistaz osaturiko talde bat, edo artista eta bere familia har ditzake. Egongela, bi logela eta estudio bat ditu. Egoiliarrak etxe guztia izango du beretzat, etxearen ohiko egoiliarrak eta gestoreak ez baitira Halfhousen egongo egonaldiak irauten duen bitartean. Edonola ere, lehenengo astean egoiliarraren jarraipena egingo da, baita erakusketa inauguratu baino astebete lehenago ere; inaugurazioa erakusketa muntatu eta prestatzeko lanekin batera egingo da. Bestalde, Halfhousek hiriko arte-sareko zenbait kontaktu eskainiko dizkio egoiliarrari.

Egonaldiaren baliabideak

- Bi hilabeteko egonaldia Halfhousen.
- Argiari, Interneti, urari eta gasari dagozkion gastuak.
- Egoiliarrantzako ordainsariak: 1.000 €.
- Erakusketa egiteko produkzioa: 1.000 € + BEZ.
- Egoiliarrantzako joan-etorriko bidaia: 150 €.
- Erakutsitako lanaren itzulerako garraioa: 200 €.
- Erakusketaren ekoizpenerako eta muntaketarako laguntza logistikoa.
- Erakusketaren hedapena.

Egutegia

- **Deialdira aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 21ean** amaituko da, gaueko 12etan.
- Hautaketa-prozesuaren emaitza maiatzaren 29an argitaratuko da, **eremuak** programaren web-orrian (www.eremuak.net)
- Egonaldia **2018ko uztailaren 1ean** hasi eta irailaren 2an amaituko da.
- Erakusketa irailaren 1ean inauguratuko da.

Eskaera

Eskaera egiteko, bidali jarraian adierazten diren dokumentuak eremuak@eremuak.net helbide elektronikora:

- Duela gutxi egindako proiektuen 10 irudi (gehienez ere) jasotzen dituen dossier bat, horietako bakoitzaren fitxa teknikoa eta deskribapen laburra barne.
- Beren lanean ikus-entzunezko baliabideak erabili dituzten sortzaileek 5 esteka gaineratu ahal izango dituzte gehienez, horiek ikusi ahal izateko (webguneak, blogak, vimeo, Youtube...). Epaimahaiak minutu bateko zatiak ikusiko ditu eta, beraz, ikusarazi nahi den zatia zehaztea gomendatzen da.
- Dokumentazio osagarria erantsi ahal izango da, eta epaimahaiak material hori ikusi ahal izango du informazio gehigarria behar izanez gero.
- Motibazio-eskutitz bat (nahi izanez gero), gehienez ere 800 karakterekoa zuriunerik gabe (350 hitz inguru).
- Biografia labur bat (gehienez ere 1.000 karaktere zuriunerik gabe, hau da, 200 hitz inguru).
- Datu pertsonalak, harremanetan jartzeko informazioa. EZINBESTEKOA DA HELBIDE ELEKTRONIKOA ETA HARREMANETAN JARTZEKO TELEFONOA ADIERAZTEA.

Halfhouse

Avenida Vallvidrera, 69, bajos
08017 Barcelona
info@halfhouse.org
www.halfhouse.org

www.eremuak.net
ESKAERA EGITEKO:
eremuak@eremuak.net